

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Gure denda, gehien bat, moda gustatzen zaien emakumeentzat zuzenduta egongo da. Inkesta baten bitartez, adieraziko dituzte interes eta ohitura berak, eta denek ez dituztela gustu komunak ikusi ahal izango dugu.

Ikusita produktu bakar batek ez dituela kontsumitzaile guztien beharrak asetzen, merkaturua segmentatzea erabakiko dugu. Orduan, arropa ezberdinak kaleratuko ditugu segmentu bat edo gehiagorentzat alegia.

Gaur egun jakinda arropa erosteko arauan desberdintasunak daudela, esaterako, batzuek estiloari garrantzia ematen diote, beste batzuek, berriz, arropa iraunkorra den edo ez den begiratzen dute eta beste batzuek kalitatea, prezioa zenbat den kontuan hartzen dute, orduan, hori honela izanda ez dute faktore berdinek eragiten erosteko, beraz, ezin dugu arropa bera saldu pertsona guztiei.

Gure arropa gehienbat emakume gazteei zuzenduta dago. 14-40 urte bitarteko emakumeentzako gehienbat.

Prezioa ez da oso merkea izango, baina arropa ekologikoarekin konparatuz bai. Arropa ekologikoa garestiagoa izango da, prozesu guztiengatik.

Bi motatako arropa egingo dugu, bezeroen arabera:

- Jantzi originalak eta modernoak egingo ditugu bezero animatuentzat, arropa ez ekologikoa izango dira hauek, prozesu gutxiago pasatu behar dituztelako.
- Jantzi ekologikoak sinpleagoak izango dira, arropa ez-ekologikoa ez bezala, hauek hainbat prozesu pasatu behar dituztelako. Arropa estilo honetan, ingurumena zaindu eta ingurumenari buruzko elkarteetan lagundu nahi duten bezeroentzat zuzenduta egongo da batez ere.